

KOSTUEN EGITURA

Gure negozioa aurrera ateratzeko bere baitan dakartzan kostu guztiei kostuen egitura deritzogu.

Beraz, gure produktua aurrera eramateko hainbat gastu eskatzen ditu eta gure enpresak gastu horiei aurre egiteko gai izan behar du.

Ondorengo kostuak izango ditugu:

KOSTU FINKOAK: ekoizitako unitate kopuruaren arabera aldatzen ez diren kostuak dira. Gure kasuan, 200m² lokala alokatuko dugu, argia, langileen soldata (14 langile), Jardueren gaineko zerga,sozietate gaineko zerga eta webgunearen hostinga nahiz eta Enekok bere ekipo informatikoa erabili.

Langileak:

Administratzailea pertsona 1: 1500 euro.

I+D 2 pertsona: 1800 euro.

Produktua ekoizten 7 pertsona: 1600 euro.

Marketing 1 pertsona: 1700 euro.

Komertziala pertsona (garraioaren kostua barne) 1: 1600 euro.

Jerentea pertsona 1: 2000 euro.

Garbitzailea pertsona 1: 1400 euro.

KOSTU ALDAKORRAK: ekoiztutako produktu kopuruaren arabera aldatzen diren kostuak dira. Gure kasuan, gure produktua ekoizteko, elektrizitatearekin lotutako materialak eta gure produktua metalezkoa izango denez, metala erosi behar dugu, eta horiek duten salmenta-bolumenaren arabekoak izango dira kostu aldakor horiek.

ESKALA EKONOMIAK: produzitutako unitateen kopurua handitzean, kostuen murrizketa lortzean datza. Hau da, gure produktua merkaturatzen dugunean,hasieran nahiko garestia dela pentsatuko duzue, baina, faktore honen ondorioz, zenbat eta gehiago ekoitzi gure produktua, kostuak murriztea lortuko dugu eta, beraz, produktuaren prezioa baxuagoa izango da.

HEDADURA EKONOMIKOAK: baliabide berdina erabiltzean datza produktu bat baino gehiago egiteko. Gure produktuak merkatuan izandako erantzunaren arabera, baliabide berdina erabiltzeko asmoa dugu beste produktu batzuk ekoizteko.

Gure proiektuak hasieran inbertsio handia egin beharra eskatzen du. Lau bazkide gara (Eneko, Ane, Maialen eta Igor) eta bakoitzak 150.000 euro jarriko ditu, beti ere, mailegu bat eskatuta.

Azkenik, gure negozio-ereduak duen kalitate-maila handiagatik funtziona dezakeela uste dugu.